

MERKATARITZAREN INGURUKO MOZIOA

Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua ematen dion aukera baliatuz, merkataritza planei buruzko MOZIO hau aurkezten du, Udalbatzaren osoko bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonetako Batzordean 2016ko urtarrilaren 7ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2014ko abuztuaren 1ean, Merkataritza eta Turismo sailburuordeak argitaratuko ebazpenaren bidez, Donostiako merkataritzaren lankidetzaren dinamizazio eta lehiakortasun arloko estrategia zonalak bultzatzera zuzendutako laguntzen deialdia argitaratu zen.

Donostiako Udalari dagokionez, zuzkidura ekonomikoa 51.750 eurokoa da. Deialdiaren barnean Donostiako Udalak egin beharreko esparru-akordioan honako jardura hauek aurreikusi ziren, besteak beste: *Eremu komertzialak definitzeko azterketa. 6.1d) art. Egiarako eta Amara Berrirako eremu komertzialak egituratzeko eta identifikatzeko azterketa.*

2015ko urtarrilean bi eremuen diagnostikoa eginda zegoen, eta plangintza nahiko aurreratuta utzi zuen maiatzerako aurreko Udal Gobernuak. Nahiz eta zinegotzi ordezkariak plangintzak irailerako martxan jarriko zirela esan, ez da halakorik gertatu.

Merkataritza Aholku Kontseiluaren azaroko bileran, Amara Berriko eta Egiako plangintzei buruz hainbat argibide eman ziren, baina egia esan, denbora aurrera doa eta ez dira gauzatzen ari. Bilera hartan zinegotzi ordezkariak batzorde bat eratzeko borondatea agertu zuen, baina ez da gauzatu. Gauza bat dela bestea dela, plangintzak ez dira inplementatzen ari eta hori onartezina da. Gai honekin hiru interpelazio egin ditugu, baina zinegotzi ordezkariak jakin dezala, plangintza hauek burutu arte, ez dugula etsiko.

Urtarrilean ere interpelazioa aurkeztu genuen, eta batzordean Ernesto Gasco jaunak Amara Berrin dendariekin lanketa egiten ari zirela adierazi zigun, eta besteak beste, bus geltokia kentzea kaltegarria izan dela esan zuen. Bi hilabete luze joan dira, eta plangintzak oraindik ez dira martxan jarri. Hori bai, Garberako hitzarmena aurrera eramateko eta onartzeko azkar ibili da Udal Gobernuak. Begien bistan geratu da zein den Udal Gobernuaren lehentasuna arlo honetan.

Honengatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkeztu du:

1-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio lehenbailehen Amara Berriko eta Egiako merkataritza planak inplementa ditzala.



EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027
20003 Donostia

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia